BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

262

AGINDUA, 2014ko abenduaren 19koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Zizurkilen (Gipuzkoa) dagoen «Jesusen Bihotza Ikastola» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Zizurkilen (Gipuzkoa) dagoen «Jesusen Bihotza Ikastola» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko eskatuz ikastetxe horren erakunde titularraren ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek hartu dira kontuan: Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa; Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua; apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– «Jesusen Bihotza Ikastola» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena ematen da: aurrerantzean «Zubimusu Ikastola - Zizurkil» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatua izango du izena. Ikastetxe horren titularra «Zubimusu Ikastola, Koop. Elkartea» da, Zizurkilgo udalerrian (Gipuzkoa) dago, Elbarrena auzoan, eta 20008635 kode-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.